

mantible

Arabako Errioxako IKA Euskaltegia

28. zenb.

2018uztaila

ikaerrioxa

solasean



Haizea Ginea Aginako naiz, Urduñan jaioa eta bertan bizi izan naiz ia bizitza osoan. Unibertsitate ikasketak Iruñean egin nituen eta garai hartan Nafarroako hiriburuan bizi izan nintzen; baina ikasketak amaitutakoan Urduñara itzuli nintzen berriz, eta gaur arte. Azken urteetan Euskara eta Kultura Teknikari lanetan ari naiz Administrazio Publikoan.

Euskara noiz ikasi zenuen? Nola?

Eskolan ikasi nuen euskara, D ereduaren. Nahiz eta gurasoek euskaraz ez jakin, garrantzi handia eman zioten guk euskaraz ikasi ahal izateari. Ni txikia nintzenean Urduñan ez zegoen D ereduaren Eskola Publiko eta laikorik eta, hura zela eta, hainbat haur Amurrioko Ikastolako haurreskolara joan ginen gure lehenbiziko urteetan. Handik gutxira, gure gurasoen borroka eta grinaren ondorioz, eskola ireki zen Urduñan. Bestalde, izeba-osabekin euskara egiten genuen beraz, familiak ere garrantzia handia izan zuen prozesu horretan; izan ere, oso garrantzitsua da eskolatik kanpo ere euskaraz egiteko aukera izatea. Izebarekin plan mordoa egiten genuen eta horiekin lotu izan dut beti euskara; oso oroitzapen politak ditut.

Nola hasi zinen maitatzen?

Betidanik maitatu izan dut euskara, eta euskarazko harremanak beti izan dira gainerakoak baino bereziagoak. Hala ere, nerabezaroan lagunartean erabiltzeari utzi genion. Gaztaroan kontzientzia hartu, euskararen erabilerari garrantzia eman eta harreman berriak egiten hasi nintzen. Horiekin euskaraz egiten nuen, betiko kuadrillarekin zailagoa zen hizkuntza-



El euskera puede abrir muchas puertas, y no solo hablo del ámbito del trabajo, sino del ámbito personal y sentimental. Creo que es una manera de entender muchas cosas.

ohiturak hartuak genituelako; nahiz eta bi-hiru pertsonako elkarrizketetan euskaraz aritu (batzuek euskararekin identifikatzen gintuzten eta), talde handian zailagoa zen. Pixkanaka, denok hasi ginen ohiturak aldatzen, eta gaur egun euskaraz hitz egiten dugu gure artean. UPNAn ikasi nuenean oso irakasgai gutxi genituen euskaraz eta ikasle mugimenduan euskal ereduaren alde aritu ginen.

Euskara ikastea garestia da, lan handia, zaila... ziur askotan entzungo zenituela: zer esango zenioke euskaraz ez dakien bati?

Borondate kontua dela uste dut. Beste zenbait gauza bezain erraza edo zaila izan daiteke. Nire iritzia: merezi du! Gastu ekonomikoa badu, baina diru-laguntzak ere



El conocimiento del euskera avanza con los años, sin embargo hay mucho trabajo por hacer. Cada vez hay más alumnos en modelo D y el euskaltegi está haciendo un gran trabajo en la enseñanza de adultos. Hay que propiciar y fomentar las oportunidades para hablar en euskera.

badaude hori errazteko. Aldiz, asebetetze maila oso handia da. Euskarak ate asko ireki ditzake eta ez naiz lan eremuan ireki ditzakeen ateez ari soilik, maila pertsonalean eta sentimentalean irekitzen dituen aukerez baizik. Gauzak beste era batera ulertzeko modua ere bada euskara.

Nola ikusten duzu Arabako Errioxako euskararen egoera oro har?

Arabako Errioxan euskararen ezagutza maila goraka doa urteekin. Hala ere, lan handia dago oraindik egiteke, batez ere, erabilerari dagokionean. D ereduaren haur eta gazte euskaldunak ari da sortzen aspaldidanik; IKA euskaltegia helduen euskalduntzean lan handia egiten ari da, eta, gaur egun, euskara ulertzen duen biztanleriaren portzentaia handia da.



Estaremos más cerca de la normalización si conseguimos que el euskera se extienda a otros ámbitos de la vida cotidiana.

Erabiltzeko aukerak indartu egin behar dira euskaraz bizitzea gauzagarria izan dadin, epe ertainera errealitate izan ahal izateko. Lehentasuna erabileran dagoela uste dut, eta, horretarako, bideak ere ari dira irekitzen Arabako Errioxan: "Kalean Bizi-Bizi" hor dago, hau da, eskolaz kanpoko ekintzak, kirol eta aisialdi eskaintza euskalduntzeko programa (Kuadrillako Euskara Zerbitzutik sortua); aspaldi da martxan Mintzalagun egitasmoa; iaiztik gurasolagun taldeak ere abian dira eta Euskaraldiak lotsak etxean utzi, gure euskara maila oztopo izan gabe mingainak astindu eta hizkuntza ohiturak eraldatzeko aukera paregabea eskainiko digu. Merkataritza eta ostalaritza ere oso esparru garrantzitsuak iruditzen zaizkit turismoak horrenbesteko indarra duen eremuan; estrategikoa iruditzen zait Arabako Errioxako Kuadrillak martxan jarritako dinamikarekin jarraitzea arlo honetan ere. Normalizaziotik hurbilago egongo gara zenbat eta eremu gehiagotara hedatu euskararen ezagutza eta erabilera; euskaraz bizitzeko aukera hurbilago izango dugu egunerokotasunean erabiltzeko aukerak handitzen baditugu.

Administrazioan ere lan handia dago egiteke. Administrazioari nahi duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko aukera eman beharko litzaieke, eta, horretarako, langileei baliabideak eskaini behar zaizkie euskararen ezagutza maila handitzeko eta gero eta gehiago erabili ahal izateko. Pixkanaka egiten ari den lana da, baina helmuga urrun samar dugu oraindik ere. Bidea egiten jarraitu behar dugu hortaz.

Arabako Errioxako euskaltzaleak zoriondu nahiko nituzke egiten duten/duzuen lan guztiagatik; besteren artean Korrika, Araba Euskaraz edo Euskaraldia bezalako egitasmoak antolatzeaz gain, egunerokoan ere Arabako Errioxan euskaraz bizi ahal izateko egiten duten/duzuen lanagatik, hain zuzen ere. Bejondeizuela!



Oraingoan zenbait laguni galdera pareta egin nahi izan dizkiegu EUSKARALDIA ekimenaren gainean, alegia, eta hauexek euren erantzunak.

1. Orain arte erdaldun eta euskaldunen arteko komunikazioa, normalean, gaztelaniaz izan da. Zer iruditzen zaizu erdaldunak euskaraz ulertzen badu, euskaldunak euskaraz egitea?
2. Euskaraldian parte hartuko duzu?

1. Hasta ahora las conversaciones entre vascoparlantes y castellanoparlantes, normalmente, son en castellano. ¿Qué te parecería que si ese castellanoparlante sería capaz de entender euskara, el vascoparlante le hablara en euskara?
2. ¿Vas a participar en Euskaraldia?

Esti



1. Oso ideia ona iruditzen zait. Euskara ikasten ari garenek euskara erabiltzen saiatu behar dugu. Azken finean, nire ustez, hizkuntza bat ikasteko helburua erabiltzea da, nire kasuan, behintzat. Egia esateko, aukera asko dut euskaraz hitz egiteko: etxean, semearekin; kalean, lagunekin. Aukera hauek aprobetxatzen saiatuko naiz. Me parece muy buena idea. Los que estamos aprendiendo euskera, tenemos que intentar utilizarlo. En mi opinión, el

- objetivo de estudiar un idioma es utilizarlo, por lo menos en mi caso. Yo tengo bastantes oportunidades de hablar euskera, por ejemplo con mi hijo, en casa y con los amigos en la calle. Intentaré aprovecharlas.
2. Bai, parte hartuko dut. "Belarriprest" izango naiz. Oraindik "ahobizi" izateko ez nago prest eta. Si, participaré. Seré "belarriprest", todavía no estoy preparada para ser "ahobizi"

Irati



1. Erdaldunak euskaraz ulertzen badu egokia ikusten dut. Batez ere, pertsona horrek euskararekiko jarrera egokia badu eta egoera horretan eroso sentitzen bada. Si entiende euskera me parece adecuado. Sobre todo, si esa persona tiene buena predisposición hacia el euskera y se siente cómoda
2. Bai, parte hartuko dut. Ekimen interesgarria iruditzen zait. Gainera, uste dut aukera

- emango duela inguruko pertsonen euskararen ezagutza zein den jakiteko eta batzuekin euskaraz komunikatzen hasteko pauso bat izango da. Si, participaré. Me parece una iniciativa interesante. Además, creo que nos dará a conocer cuál es el nivel de conocimiento de la gente de la zona, y será el primer paso para empezar a comunicarnos en euskera con algunas personas.

Jose Ignacio



1. Oso egokia iruditzen zait. Euskara sustatzeko egiten den guztiari izugarri ona derizot. Praktikatzea, erabiltzea eta oztoporik ez izatea da helburua. Poliki-poliki gurte hizkuntzari eutsi behar diogu. Badakit geure inguruan ez dela kontu erraza, baina ahaleginfu behar gara. Me parece perfecto. Creo que todo lo que se hace para fomentar nuestra lengua hay que apoyarlo. Practicarlo, utilizarlo y superar los obstáculos es el objetivo. Que se vaya poco a

- poco metiendo el idioma. Ya sé que es difícil aquí, pero bueno hay que hacer esfuerzos.
2. Parte hartuko nuke, jakina; izan ere, familia euskalduna dut, nik tutik ez jakin arren. Baina aukerarik banu, izugarria litzateke niretzat. Zalantzarik gabe, saiatuko nintzateke. Ya lo creo que sí. Parte de mi familia es euskaldun, aunque yo por desgracia no lo hablo. Si tuviese la oportunidad sería perfecto para mí. Sin duda lo intentaría.

Iker



1. Badakigu mugan bizitzea zer den: euskara hizkuntza arraroa izatea gure kaleetan, gure egunerokoan, aukera murriztuak izatea... baina egia da askok ulertzen gaituztela. Erdaldunak euskara ulertzeko prest egoteak guri aske erabakitzeko aukera ekarriko liguake, libre sentitzeko. Sabemos lo que supone vivir en la frontera: que el euskera sea una lengua extraña en nuestras calles, en nuestro día a día, tener pocas oportunidades... Pero es verdad que muchas personas son capaces de entendernos. El hecho de que la gente este dispuesta a entendernos en euskara nos hace poder elegir libremente el idioma que queremos utilizar.
2. Bai, noski! Nola ez! Euskaraldiak Euskal Herrian izango duen ohiartzunaren parte izan nahi dut, eta Arabar Errioxarako suposatuko duen pausu berri horren parte. Ezinbestekoa

da euskara bultzatzea, guretzat adierazten duena besteei erakustea, gure eskubideak defendatzea eta Arabar Errioxa euskaldun baten alde jokatzeko. Horretarako, Lantziegon, talde txiki batekin, zenbait ekintza burutzen ari gara: sentsibilizazio kanpainak, material desberdinak... Guk, Arabar Errioxan saretuta gauden herriek, 11 egun euskaraz bizitzea hasiera bakarrik izatea nahi dugu, bultzada, 365 egun euskaraz bizi ahal izateko! Por supuesto. Quiero formar parte de la repercusión que va a suponer Euskaraldia en Euskal Herria y quiero vivir de primera mano el gran paso que va a suponer para el euskera en Rioja Alavesa. Es imprescindible impulsar el euskera, enseñar a los demás lo que supone para nosotros, defender nuestros derechos y luchar por una Rioja Alavesa euskaldun. En Lanciego un pequeño grupo de personas estamos realizando campañas de sensibilización, varios materiales... para preparar el Euskaraldia. Y desde la red de municipios que estamos impulsando euskaraldia en Rioja Alavesa, queremos que la campaña de vivir 11 días en euskera sea solo el principio, un empujón, para poder vivir 365 días en euskera.

Ketxu



1. Guk bide edo kanal hori aspalditik aplikatzen dugu. Ondarrun 16 ginen koadrillan eta bakarra zen erdalduna; hala ere, denok gaztelaniaz egiten genuen. Egun batean hasi ginen euskaldunak euskaraz, eta erdaldunak berehala ikasi zuen ulertzeko moduan, behintzat. Gasteizen ere badut lagun bat nik euskaraz eta berak gaztelaniaz egiten didana. Esa vía la utilizamos desde hace tiempo en mi cuadrilla en Ondarroa. Eramos 16, y solo uno no sabía euskera; aun así, todos hablábamos en castellano. Un día decidimos cambiar, empezamos a hablar en euskera y el que no sabía enseguida llegó a entender lo que hablábamos, aunque participaba en castellano. En Vitoria también tengo un amigo con el que yo hablo en euskera y él en castellano
2. Bai, noski! Ea lortzen dugun 11 egun horietan erabilera handitzea eta aurrera begira ere mantentzea erabilera hori
Por supuesto! A ver si conseguimos aumentar el uso del euskera en esos 11 días y alargar en el tiempo la costumbre de hablar en euskera

Ruth



1. Oso ondo iruditzen zait. Lagunekin egoten naizenean, ia-ia beti gaztelaniaz hitz egiten dugu, eta normalean euskaraz umeeekin bakarrik erabiltzen dugu. Zergatik ez dugu ohitura hori aldatuko? Lagunek asko lagundu ahal didate nire euskara hobetzen.
Me parece muy bien. Cuando estoy con lo/as amiga/os casi siempre hablamos en castellano, y normalmente solo utilizamos el euskera con lo/as niña/os. ¿Por qué no vamos a cambiar esta costumbre? Además, lo/as amiga/os me pueden ayudar a mejorar mi euskera.
2. Euskaraldian parte hartzen badut, argi dut “belarriprest” izango naizela. Baina, agian, denborak aurrera egin ahala “ahobizi” izan ahalko naiz.
Si participo en Euskaraldia, tengo claro que seré “belarriprest”, pero, quizás, cuando pase el tiempo pue da ser “ahobizi”.

Maria



1. Ideia mundiala iruditzen zait. Berritasuna. Aurrerapausoa. Askorekin hizkuntza ohiturak sortuta ditugu eta ea nola sentitzen garen erdaldunari (ulertzen duenari) euskaraz egiten, ea eroso gauden, baina ziur naiz behin hasierako muga gaindituta, asko emango digula bide honek. Me parece una idea genial. Una novedad, un avance. Con muchas personas tenemos las costumbres lingüísticas formadas, y habrá que ver cómo nos sentimos cuando hablemos con los/as castellano parlantes que entienden euskera, a ver si nos sentimos cómodos/as.
2. “Aho bizi” txapa eskatuta daukat.
Ya he solicitado mi chapa de “aho bizi”

Vitin



1. Saiatzea merezi du; azken batean hamaika egunetako kontua besterik ez da; ondo iruditzen zait. Normaltasunera jo behar dugula uste dut. Creo que merece la pena la iniciativa; además, como has dicho todo esto es durante once días... Me parece muy bien. Creo que hay que tender a la normalidad.
2. Nik ez dakit euskaraz egiten, baina ulertu edota jakingo banu parte hartuko nuke zalantzarik gabe. Baditut pilota munduan aritzen diren zenbait lagun, eta haien artean euskaraz egiten dute; primeran iruditzen zait.
Yo no sé euskera, pero si lo entendiera o hablase, sin duda participaría en el Euskaraldia. Tengo varios amigos que he conocido en e mundo de la pelota, y entre ellos hablan euskera; me parece bien.

Maider



1. Oso pauso garrantzitsua iruditzen zait euskara gehiago entzuteko. Nik dudan pertzepzioa da jendeak euskara pixka bat badakiela baina ez dela ausartzen egitera; bide berri honek horiei guztiei aukera emango diela iruditzen zait eta ohitu behar dugula, oso ideia positiboa baita.
Me parece un paso muy importante para escuchar más euskera en esta zona. Tengo la percepción de que hay mucha gente que sabe un poco de euskera, pero no se atreve a utilizarlo; creo que esta vía de comunicación ayudará a todas esas personas.
2. Bai horixe! Bereziki landu beharko dugun alorra erdaldunaren jarrera ona izatea da.
Claro! Tendremos que trabajar especialmente la actitud del castellanoparlante, siempre desde el respeto.

Sandra



1. Ondo iruditzen zait erdaldunak euskaraz ulertzen badu, euskaldunok euskaraz egitea, horrela egiten badugu, hizkuntza galduko ez dugulako. Beraz, edozein momentutan saiatu beharko genuke euskaraz hitz egiten.
Me parece muy bien que si un castellanoparlante entiende el euskera los vasco parlantes hablemos en euskera, porque si lo hacemos no perderemos nuestro idioma. Por lo tanto, tendríamos que intentar en cualquier momento hablar en euskera.
2. Ahobizi izango naiz, euskara ulertzen dugunoi hitz egitea falta zaigu, eta, gainera, hori lortzeko bultzada bat ematea ezinbestekoa da.
Seré ahobizi, porque lo que nos falta a los que entendemos euskera es hablarlo. Además, es imprescindible darle un impulso al euskera.



TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: Arabako Errioxako IKA.

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikauskaltegiak.eus>

errioxa@ikauskaltegiak.eus

zuek ere euskaraz

MENDERAGAILUAK DIRELA ETA

Oraingoan *menderagailuen* inguruan jardungo dugu, lagun. Hona hemen zenbait esaldi; alabaina ez dira oso zuzenak. Zuzentzen ausartuko?

1. Teseok Minotauroaren labirintotik irtetea lortu zuen, **eta baita ere** Ariadnak.
2. **Segun eta** zenbat opor egun edukitzen diren aukera daiteke bidaia luzea egitea edo etxean bertan gelditzea.
3. Hori **gutxi balitz**, azken zortzi urteetako markarik onena egin du: 37 minutu eta 34 segundo.
4. Bi emakume zauritu ziren atzo Oionen, auto batek harrapatu **ostean**.
5. Ez dute **zertan** elkarren aurka egon **behar**.
6. **Denik eta** herririk ederrean bizi naiz: Labrazan.
7. % 10eko deskontua ikuskizun guztietarako txartelarekin ordainduz.
8. **Ahalik eta** hobeto saiatu zen egiten, baina azkenik ez zuen lortu.

ERANTZUNAK

1. Ariadnak Minotauroaren labirintotik irtetea lortu zuen, eta baita Teseok ere.
2. Zenbat opor egun edukitzen diren, aukera daiteke bidaia luzea egitea edo etxean bertan gelditzea.
3. Hori gutxi balitz bezala, azken zortzi urteetako markarik onena egin du: 37 minutu eta 34 segundo.
4. Bi emakume zauritu ziren atzo Oionen, auto batek harrapatu harrapatuta.
5. Ez dute zertan elkarren aurka egon.
6. Denik eta herririk ederrean bizi naiz: Labrazan.
7. % 10eko deskontua ikuskizun guztietarako, txartelarekin ordainduz gero.
8. Ahalik eta ondoen saiatu zen egiten, baina azkenik ez zuen lortu.



2017/18 IKASTURTEKO IKASLEEN JATORRIA

HERRIA	IKASLE KOPURUA
Andosilla	1
Aras	1
Bargota	3
Bastida	18
Bilar	2
Biasteri	26
Ekora	2
El Campillar	1
Eskuernaga	3

HERRIA	IKASLE KOPURUA
Gasteiz	5
Gorrebusto	2
Haro	7
Kripan	3
Lantziego	10
Lapuebla de Labarca	9
Leza	2
Logroño	24
Mañueta	6

HERRIA	IKASLE KOPURUA
Mendabia	3
Moreta	1
Oion	35
Paganos	1
Samaniego	3
Viana	10
Zieko	9
Beste batzuk	10
GUZTIRA	197